

## Rikardo Arregi 1942-1969

*Uztailaren 10ean hamar urte Rikardo Arregi hil zela. Eta jadanik euskal kulturaren historia hurbilean gorenetakoa leku bat eskubide osoz irabazirik du.*

JAKINEK Rikardo gogoratzeko motibapen sakonak ditu. Lan-kide izan dugu, bere pentsaera-artikuluak gure aldezkarian eman zituen, Rikardoren proiektu asko (hala nola, Euskal Idazleen Elkarte eta editoriale modernua) ingurune honetantxe sortu ziren lehenengoz, LUR argitaletxea abiatzeko abonamendu-zerrendak JAKINETIK jaso zituen, 1968-1969 urteetan JAKINEN ardatza izan zen, zuzendariarekin eta Karlos Santamariarekin batean.

Omenaldi gisako hiruzpalau orri hauetan zer berririk esan Rikardo Arregiri buruz? Rikardo luze idatzi baita, asko hitze-gin baita. Haren pentsaera politikoa, erlijiosoa, soziala aztertutik daude, haren lanak eta nekeak ezagunak zaizkigu, haren idazlanak publikatu ditugu. Ez du merezi berriz azterketa sakonetan sartzeak. Rikardoren lanak eta eritziak hurbildik ezagutu nahi dituenak, hor ditu eskura RIKARDO ARREGI obran Alfabetatze Batzordeak, Joan Mari Torrealdai eta Joseba Arregik egindako lanak (JAKIN sorta 3, 1971) eta hor du batez ere HERRIAREN LEKUKO liburuan Joxe Azurmendik «Hitzaurre politikoa» izenaz egiten duen azterketa luzea (JAKIN liburu sorta 6, 1972).

Gauza arin bat aurkezten dugu guk hemen. Rikardoren pentsaera-ardatzan aipamenaz aparte, testigutzak dira gebiago besteak, Rikardo adiskide, lankide eta/edo gidari izan dutenen lanak. Mikel Lasarena. Rikardo hil berri zelarik egina da (1970); gainerakoak, iaz Rikardoren Andoaingo omenaldirako prestatuak.